# *ZINE FORUMA – V.O.S*

# CHARULATA. EMAZTE BAKARTIA 1964
# (Satyajit Ray)

## Ekainak 16, ASTEAZKENA, 19:00 124 min

Charulataren istorioa kontatzen du, XIX. mendearen amaieran girotutako Rabindranath Tagoreren kontakizun batean oinarritua, India oraindik kolonia ingeles bat zenekoa. Madhabi Mukherjeek interpretatua, Charulata bere eguneroko monotoniaz aspertutako emakume bat da. Bere senarra, Bhupati (Shailen Mukherjee), bere egunkaria aurrera ateratzen ari da eta ez du horretarako astirik. Beraz, bere lehengusu Amali (Soumitra Chatterjee), literaturako ikasle gazte eta alaiari, emazteari bere idazteko gaitasuna garatzen lagun diezaion eskatuko dio.

Giza harremanei, bakardadeari eta emakumeen emantzipazioari buruzko hausnarketa bikaina da filma. Charulata bitxia, ikasia eta argia da, baina gizartean duen rola bere etxea eramatean datza. Rayk autoerrealizazio behar hau modu bikainean deskribatzen du filmean. Charulatak, Amalengan, bere senarrarekin ez duen lotura intelektual bat aurkitzen du, bere gaitasun pertsonalak garatzeko inspirazio bezala balioko diona.

Gainera, Subrata Mitraren argazkilaritza-lan delikatuak ezin hobeto osatzen du trama, eszenan agertzen diren pertsonaien emozioak transmititzea lortzen baitu. Bereziki, Madhabi Mukherjeeren interpretazioa nabarmentzen da. Rayk berak konposatu zuen filmaren soinu-banda, eta Bengalara eraman zuen ikuslea.

Beraz, ezinbesteko filma da, erritmo eta zinematografia hipnotizatzailea dituena. Satyajit Ray zinemaren historiako zuzendari garrantzitsuenetako bat dela frogatzen du.

**Berlingo Zuzendari Onenaren Zilarrezko Hartza 1965**

www.tolosa.eus

# ZINE FORUMA – V.O.S

## CHARULATA.LA ESPOSA SOLITARIA
## (Satyajit Ray)

***16 de junio, MIERCOLES, 19:00*** ***124 min***

*Basada en un relato de Rabindranath Tagore ambientado a finales del siglo XIX, cuando la India era todavía una colonia inglesa ,narra la historia de Charulata, interpretada por Madhabi Mukherjee, una mujer aburrida de la monotonía de su día a día. Su marido, Bhupati (Shailen Mukherjee), está tan centrado en sacar adelante su periódico que no tiene tiempo para ella. Por lo tanto, le pide a su primo Amal (Soumitra Chatterjee), un joven y alegre estudiante de literatura, que ayude a su esposa a desarrollar su talento para la escritura.*

*La película es una excelente reflexión sobre las relaciones humanas, la soledad y la emancipación femenina. Charulata es curiosa, culta e inteligente, pero su rol en la sociedad consiste únicamente en ocuparse de llevar su casa. Ray describe esta necesidad de autorrealización de una manera brillante en el filme. Charulata encuentra en Amal una conexión intelectual que no tiene con su esposo, que le servirá de inspiración para desarrollar sus capacidades personales.*

*Además, el delicado trabajo de fotografía de Subrata Mitra complementa a la perfección la trama, ya que consigue transmitir las emociones de los personajes que aparecen en escena. En especial, destaca la interpretación de Madhabi Mukherjee, capaz de comunicar con tan solo una mirada. También fue el propio Ray el encargado de componer la banda sonora de la cinta, que transporta completamente al espectador a Bengala.*

*Se trata pues de una película imprescindible, con un ritmo y una cinematografía hipnotizantes. Demuestra que, efectivamente, Satyajit Ray es uno de los directores más importantes de la historia del cine.*

***Oso de Plata al Mejor Director- Festival de Berlin 1965***